

Burutuko dugun funtsezko jarduera nagusiki ekoizpena izango da. Eskuz ekoiztuko ditugu gure kabuz produktuak. Hau izango da gure helburu nagusia. Hala ere, arazoak konpontzeko laguntzak eskainiko ditugu, batez ere, ingurumenaren zaintza.

Horrez gain, web orrialdea gure kabuz kudeatuko dugu. Laguntza behar izango dugu sorkuntzaren prozesuan baina behin bukatuta izanda guk bakarrik mantenduko dugu. Beraz, plataforma eta Sareko jarduerak landuko ditugu, nahiz eta garrantzi txikiagokoak izan.

Beste aldetik, produktuak entregatzerako orduan beste enpresa batzuekin akordio bat sinatuko dugu, momentuz lortu ezin dugun ekintza bat delako.